1.- No serán de aplicación las limitaciones recogidas en capítulo II del título V del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, a las transferencias de crédito que sean necesarias para la adecuada ejecución de las actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. Estas transferencias de crédito serán autorizadas por el Departamento de Economía y Hacienda.

2.- Asimismo, a los efectos de lo dispuesto en el artículo 98 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, las modificaciones en los presupuestos de los entes públicos de derecho privado, de las sociedades públicas y de las fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuando vayan destinadas a la financiación de actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, serán autorizadas por el Departamento de Economía y Hacienda.

3.- Los remanentes que al finalizar el ejercicio 2022 presenten los créditos presupuestarios incluidos en el Programa 1228 "Mecanismo de Recuperación y Resiliencia", y no se hayan consignado en el presupuesto inicial, se incorporarán a los Presupuestos Generales del ejercicio 2023 para su aplicación a los mismos gastos, de conformidad con lo que disponga el Departamento de Economía y Hacienda. A dichos créditos no les será de aplicación el requisito temporal previsto en el artículo 90.1 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo. Las incorporaciones de crédito serán financiadas con cargo a remanentes de tesorería de la forma que disponga el Departamento de Economía y Hacienda.

4.- Los ingresos derivados de reintegros de pagos realizados con cargo a créditos presupuestarios vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia,

itzuli izanagatik, kreditu horiek berriz ere ordainketak egin ziren unean zeuden bezalaxe jarri beharko dira, betiere dagokion araudi erregulatzaileak hori ahalbidetzen badu eta Ekonomia eta Ogasun Sailak baimena ematen badu.

5.- Ekonomia eta Ogasun Sailak soberazkotzat jo ahal izango ditu hasieran 2023ko ekitaldirako onartutako aurrekontuan sartutako kredituak, baldin eta kreditu horiek bat badatoz geroago Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsekin finantzatzeko jarduketak eta proiektuekin. Ekonomia eta Ogasun Sailak soberazko kreditu horiek aplikatu ahal izango ditu beste ordainketa-kreditu batzuen zuzkiduren gabeziei erantzuteko, bereziki inbertsio-proiektuak egiteko eta kreditu zabalgarriak finantzatzeko.

6.- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsekin finantza daitezkeen jarduketak eta proiektuak dagoeneko hasi edo gauzatu badira funts horiek sortu ez dituzten kredituen kargura, Ekonomia eta Ogasun Sailak kreditu horiek birjarri ahal izango ditu dagokien atalean, betiere ekonomia eta gizartea suspertzera eta erresilientzia bultzatzera bideratutako jarduketak eta proiektuak edo inbertsio-proiektuak finantzatzeko.

31. artikulua.- Gastua exekutatzea.

1.- Gobernu Kontseiluak, Ekonomia eta Ogasun Sailak proposatuta, eta bat etorriaz Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren araudi erregulatzailean ezarritakoarekin, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik eratorritako funtsen kudeaketari aplikatu beharreko irizpideak finkatu ahal izango ditu, bai eta plan hori lotutako jarduketak eta proiektuetan egindako gastuen aurrekontu-exekuzioari aplikatu beharrekoak ere, ekimen horretan aurreikusitako helburuak lortzen direla bermatzeko.

2.- Jarduketa eta proiektu horiek gauzatzearekin lotutako gastu-baimenek memoria espezifiko bat izan beharko dute, jarduketa edo proiektu bakoitzerako gastu-zenbatespenak kuantifikatu eta justifikatuko dituen, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean aurreikusitako helburuak betetzen zer neurritan laguntzen duten azalduko duena.

32. artikulua.- Espezialitateak, prozedurak izapidetzean.

1.- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak eta Ekonomia eta Ogasun Sailak proposatuta, Gobernu Kontseiluak espezialitateak ezarri ahal izango ditu Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketak eta proiektuak izapidetzean. Ondorio horietarako, baldin eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsetatik eratorritako Estatuko Administrazioaren edo Europar Batasunaren transferentziak eta ekarpenak bideratzeko hitzarmen-proiektuak edo beste tresna juridiko batzuk badira, nahikoa izango da, izapidetzean, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena.

tanto en el ejercicio 2023 como en presupuestos anteriores, darán lugar a la reposición de dichos créditos en iguales condiciones a las que tenían en el momento de realizarse el pago, siempre que así lo permita la correspondiente normativa reguladora y lo autorice el Departamento de Economía y Hacienda.

5.- El Departamento de Economía y Hacienda podrá declarar excedentarios aquellos créditos que, inicialmente incluidos en el presupuesto aprobado para el ejercicio 2023, se correspondan con actuaciones y proyectos financiados posteriormente con fondos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. Estos créditos excedentarios podrán aplicarse por el Departamento de Economía y Hacienda a atender las insuficiencias en las dotaciones de otros créditos de pago, en especial los destinados a proyectos de inversión, así como a la financiación de créditos ampliables.

6.- En el caso de que las actuaciones y proyectos susceptibles de ser financiados con fondos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia ya se hayan iniciado o ejecutado con cargo a créditos no generados por dichos fondos, el Departamento de Economía y Hacienda podrá restituir estos créditos en la sección correspondiente para financiar, en todo caso, actuaciones y proyectos destinados a la recuperación y resiliencia económica y social o proyectos de inversión.

Artículo 31.- Ejecución del gasto.

1.- El Consejo de Gobierno, a propuesta del Departamento de Economía y Hacienda y de acuerdo con lo establecido en la normativa reguladora del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia, podrá fijar los criterios aplicables a la gestión de los fondos derivados del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia y a la ejecución presupuestaria de los gastos realizados en las actuaciones y proyectos vinculados a dicho plan, con el fin de garantizar la consecución de los objetivos previstos en dicha iniciativa.

2.- Las autorizaciones de gasto vinculadas a la ejecución de dichas actuaciones y proyectos deberán incorporar una memoria específica, que cuantifique y justifique las estimaciones de gasto para cada actuación o proyecto y en qué medida contribuyen al cumplimiento de los objetivos previstos en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Artículo 32.- Especialidades en la tramitación de los procedimientos.

1.- El Consejo de Gobierno, a propuesta de los Departamentos de Gobernanza Pública y Autogobierno, y de Economía y Hacienda, podrá establecer las especialidades en la tramitación de las actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. A estos efectos, cuando se trate de proyectos de convenio o de otros instrumentos jurídicos por medio de los cuales se instrumenten las transferencias y aportaciones de la Administración del Estado o de la Unión Europea derivadas de los fondos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, sólo requerirán en su tramitación informe del Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco y de la Oficina de Control Económico.

2.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 33. artikuluari jarraituz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketak eta proiektuak sustatzeko izapidetu behar diren administrazio-prozedurei presako izapidetzea aplikatuko zaie, eta, beraz, erdira murriztuko dira prozedura arrunterako ezarritako epeak, salbu eta eskabideak eta errekurtsioak aurkezteari dagozkionak. Hori guztia, 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 50. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe (36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko).

3.- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketa eta proiektuen esparruan ematen diren laguntza eta dirulaguntza publikoen kasuan, dirulaguntzaren ordainketa aurreratua egin ahal izango dira, justifikazioa egin aurretik, baldin eta beharrezkoa bada dirulaguntzari edo laguntzari atxikitako jarduketak gauzatu ahal izateko, eta ez da eskatuko bermea eratzea.

33. artikulua.- Jarduketak eta proiektuak gauzatu izanaren jarraipena eta justifikazioa.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketak eta proiektuak gauzatzeko eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko sailtako eta sektore publikoko entitateetako organoek, bat etorritik Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren araudi erregulatzailearekin eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandako jarraibideekin, behar den informazioa eman beharko dute mugarri eta helburuak zenbateraino bete diren jakin ahal izateko, alde batetik, eta, bestetik, jarduketa eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpena behar bezala justifikatu eta ziurtatu ahal izateko.

34. artikulua.- Legebiltzarrari informazioa ematea.

Jaurilaritzak, hiru hilean behin, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsen kargura finantzatutako partidei dagozkien kredituen exekuzio-maila eta berariazko xedea jakinaraziko dizkio Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari, lege honen 40. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- De conformidad con el artículo 33 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, a los procedimientos administrativos que deban tramitarse para impulsar las actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia se les aplicará la tramitación de urgencia, por la cual se reducirán a la mitad los plazos establecidos para el procedimiento ordinario, salvo los relativos a la presentación de solicitudes y recursos, sin perjuicio de lo previsto en el artículo 50 del Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

3.- En el supuesto de ayudas y subvenciones públicas que se concedan en el marco de las actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, se podrán realizar pagos anticipados de la subvención con carácter previo a la justificación, cuando fuere necesario para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención o ayuda, sin que sea exigible la constitución de garantía.

Artículo 33.- Seguimiento y justificación de la ejecución de las actuaciones y proyectos.

Los órganos de los Departamentos y de las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi competentes para la ejecución de las actuaciones y proyectos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia deberán aportar, conforme a lo previsto en la normativa reguladora del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia y las instrucciones que dicte la Oficina de Control Económico, la información que resulte necesaria para posibilitar el seguimiento del cumplimiento de los hitos y objetivos y una adecuada justificación y certificación de la ejecución presupuestaria y contable de dichas actuaciones y proyectos.

Artículo 34.- Información al Parlamento.

El Gobierno dará cuenta trimestralmente a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco del grado de ejecución y destino específico de los créditos correspondientes a las partidas financiadas con cargo a los fondos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, de conformidad con lo establecido en el artículo 40 de la presente ley.

III. TITULUA: DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA
TITULO III: EL ESTADO DE INGRESOS

I. kapitulua: Foru-aldundien ekarpenak
Capítulo I: Aportaciones de las Diputaciones Forales

III. TITULUA

DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

I. KAPITULUA

FORU-ALDUNDIEN EKARPENAK

35. artikulua.- Foru-aldundien ekarpenak.

2023ko ekitaldian zehar, foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuan izendatutako kredituei eusteko egin beharreko ekarpenak 11.901.076.732 eurokoak izango dira, urriaren 7ko 4/2021 Legearen bidez onartutako metodologiarekin bat etorritz.

36. artikulua.- Ekarpen-Koefizienteak.

Aurreko artikuluan zehaztatutako zenbatekoari ondoko ehunekoak ezarri ateratzen da lurralde historiko bakoitzak egin beharreko ekarpena. Hona ehunekook:

ARABA: % 16,05

BIZKAIA: % 50,54

GIPUZKOA: % 33,41

TÍTULO III

EL ESTADO DE INGRESOS

CAPÍTULO I

APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES
FORALES

**Artículo 35.- Aportaciones de las diputaciones
forales.**

Durante el ejercicio 2023, las aportaciones de las diputaciones forales al sostenimiento de los créditos consignados en el presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi ascenderán a 11.901.076.732 euros, de conformidad con la metodología aprobada por la Ley 4/2021, de 7 de octubre.

Artículo 36.- Coeficientes de aportación.

La aportación de cada territorio histórico será la resultante de aplicar a la cantidad consignada en el artículo anterior los porcentajes siguientes:

ARABA/ÁLAVA: 16,05%

BIZKAIA: 50,54%

GIPUZKOA: 33,41%

II. kapitulua: Zerga izaerako araua
Capítulo II: Normas de carácter tributario

II. KAPITULUA

ZERGA-IZAERAKO ARAUAK

37. artikulua.- Tasak eta izaera publiko ez-tributarioko ondare-prestazioak (tarifak).

Oinarriaren ehuneko jakin bat finkatuta ez izateagatik edo oinarria moneta-unitateetan emana ez egoteagatik finakoak diren tasak eta izaera publiko ez-tributarioko ondare-prestazioak (tarifak) ez dira igoko, 2022. ekitaldian indarrean dagoen zenbatekoaren aldean.

Aurreko paragrafoetan aurreikusitakotik salbuesten dira lege honetan berariaz eguneratzen diren tasak eta tarifak.

CAPÍTULO II

NORMAS DE CARÁCTER TRIBUTARIO

Artículo 37.- Tasas y prestaciones patrimoniales de carácter público no tributarias (tarifas).

Las tasas y prestaciones patrimoniales de carácter público no tributarias (tarifas) de cuantía fija, por no estar fijadas en un porcentaje de la base o no estar ésta valorada en unidades monetarias, no se incrementarán respecto a la cuantía vigente en el ejercicio 2022.

Se exceptúan de lo previsto en los párrafos anteriores las tasas y tarifas que sean objeto de actualización específica en esta ley.

IV. TITULUA: KONTRATATZEKO ETA GASTUA BAIMENTZEKO ARAUAK
TITULO IV: NORMAS DE AUTORIZACIÓN DEL GASTO Y DE
CONTRATACIÓN

IV. TITULUA

KONTRATATZEKO ETA GASTUA BAIMENTZEKO ARAUAK

38. artikulua.- Gastua baimentzeko arauak.

1.- Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuak onetsi zuen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 113.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko dute 5.000.000 eurotik gorako gastuek, egitekoa den gastuari dagokion kredituaren izaera edozein izanik ere, salbu eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan sartutako entitateetarako transferentziak direnean, edo Euskal Autonomia Erkidegoaren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzen diren entitateekiko enkarguak direnean, edo Aurrekontuetan jasotako dirulaguntza izendunak direnean, kasu horietan ez baita baimen hori beharko.

2.- Organismo autonomoetako aurrekontuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetako aurrekontuen kontura egiten diren gastuek atxikita dauden saileko sailburuaren baimena beharko dute 1.000.000 euro baino gehiago direnean, edo, aurreko paragrafoaren kasuan, Gobernu Kontseiluarena.

39. artikulua.- Kontratatzeko arauak.

1.- Kontratazioaren arloan, Gobernu Kontseiluari egokituko zaio aurreko artikuluko 1. paragrafoan adierazitako zenbatekoaren gainetik dagoen aurrekontua duten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, organismo autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoen kontratuak eta esparru-akordioak baimentzea. Kasu horretan, kontratu eta esparru-akordioak baimentzearekin batera, gastua ere baimenduko da, baita pleguetan aurreikusitako aldaketei eta luzapenei dagokiena ere.

2.- Esparru-akordioak baimentzearekin batera, baimenduko dira akordio horietatik eratorri eta aurreko artikuluko 1. paragrafoan azaldutako zenbatekoaren gainetik dauden kontratuak ere.

TÍTULO IV

NORMAS DE AUTORIZACIÓN DEL GASTO Y DE CONTRATACIÓN

Artículo 38.- Normas de autorización del gasto.

1.- A los efectos de lo dispuesto en el artículo 113.1 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, será precisa la autorización del gasto por el Consejo de Gobierno cuando aquél exceda de 5.000.000 de euros, cualquiera que sea la naturaleza del crédito a cuyo cargo se realice, salvo que se trate de transferencias a las entidades integradas en el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, encargos a entidades que tengan atribuida la condición de medio propio personificado de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi o subvenciones nominativamente asignadas en los Presupuestos, en cuyo caso no se precisará de tal autorización.

2.- Los gastos realizados con cargo a los presupuestos de los organismos autónomos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi se autorizarán por el consejero o consejera del departamento al que estén adscritos cuando excedan de 1.000.000 de euros o, en el caso del párrafo anterior, por el Consejo de Gobierno.

Artículo 39.- Normas de contratación.

1.- En materia de contratación, corresponderá al Consejo de Gobierno la autorización de los contratos y acuerdos marco de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de los organismos autónomos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuyo presupuesto sea superior a la cuantía contemplada en el párrafo 1 del artículo anterior. En tal supuesto, dicha autorización llevará aparejada la del gasto, incluido el correspondiente a las eventuales modificaciones y prórrogas previstas en los pliegos.

2.- La autorización de los acuerdos marco conllevará la autorización de sus contratos derivados cuyo importe sea superior, asimismo, a la cuantía contemplada en el párrafo 1 del artículo anterior.

V. TITULUA: LEGEBILTZARRARI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA
TITULO V: INFORMACIONES AL PARLAMENTO

V. TITULUA

**LEGE BILTZARRARI EMAN BEHARREKO
INFORMAZIOA**

40. artikulua.- Aldizkako informazioak.

1.- Jaurlaritzak, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuak onetsi zuen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginak eskatutako informazioaz gainera, eragiketa hauen berri emango dio Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari hiru hilean behin:

a) Zuzenbide pribatuko ente publikoen, sozietate publikoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioen aurrekontuak zenbateraino bete diren, bai eta entitate haien egoera-balantzea, galeren eta irabazien kontua, eta esku-diru fluxuen egoera.

b) Aldi horretan emandako bermeen zerrenda, eta bermeen onuradunek bete beharrekoa bete izan ez dutelako aurre egin behar izan dien bermeei buruzko informazioa.

2.- Aurreko zenbakian aipatzen den informazioa hiruhileko natural bakoitzaren muga-egunean itxiko da eta aipatutako muga-egunaren hurrengo bigarren hileko 15a baino lehen igorriko da Legebiltzarrera.

41. artikulua.- Bestelako informazioak.

Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari zenbait eragiketaren berri emango dio, eragiketa horiek gertatzen diren hilaren hurrengoan. Hona hemen eragiketok:

a) Egindako zorpetze-eragiketak.

b) Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateei emandako urtebeterako edo gutxiagorako kreditu eta aurrerakinak.

c) Itundutako zergetan foru-aldundi bakoitzak izandako diru-sarrerak, zergak sailkatuak eta zehaztuak.

TÍTULO V

INFORMACIONES AL PARLAMENTO

Artículo 40.- Informaciones periódicas.

1.- El Gobierno, además de la información exigida por el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, dará cuenta trimestralmente a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco de las siguientes operaciones:

a) Grado de realización de los presupuestos, así como balance de situación, cuenta de pérdidas y ganancias y estado de flujos de efectivo, de los entes públicos de derecho privado, de las sociedades públicas y de las fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

b) Garantías concedidas en el periodo e información de aquellas a las que haya tenido que hacer frente por causa de incumplimiento por parte de las personas beneficiarias de las garantías.

2.- La información a que se refiere el número anterior se cerrará en la fecha de vencimiento de cada trimestre natural y se remitirá al Parlamento antes del día 15 del segundo mes siguiente a dicho vencimiento.

Artículo 41.- Otras informaciones.

Asimismo, el Gobierno dará cuenta a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco, dentro del mes siguiente a aquel en que se produzcan, de las siguientes operaciones:

a) Operaciones de endeudamiento realizadas.

b) Créditos y anticipos concedidos por el Consejo de Gobierno, por plazo no superior a un año, a las entidades integrantes del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Ingresos de cada una de las diputaciones forales en tributos concertados, desglosados por impuestos.

XEDAPEN GEHIGARRIAK
DISPOSICIONES ADICIONALES

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.- Etxebizitza eta lurzoru arloko finantza-neurriak.

Babes ofizialeko etxebizitzaren araubideari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko araudian agindutakoa betetze aldera, deskontuen bidez 2023. urtean zehar egingo dituen finantza-eragiketen zenbatekoak ezin izango du 20.150.600 eurotik gora egin.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Sustapenerako neurriak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailek eta Administrazio instituzionaleko zuzenbide pribatuko ente publikoek zenbait egitasmo finantzatzeko laguntzak eman ahal izango dituzte, mailegu eta aurrerakin itzulgarri modura, ekonomia bultzatzeko, ikus-entzunezko produkzio-sektoreak sustatzeko, jasangarritasun energetikoaren alorreko ekintzak eta proiektuak sustatzeko, bai eta ikerketa, garapen eta berrikuntza sustatzeko ere.

Kontuan hartu beharreko arauetan jartzen duen moduan eman beharko dira laguntza horiek. Eta maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuak onetsi zuen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginean ezarritakoa gorabehera, hartarako eskumena duen organoak gastu-konpromisoak hartu ahal izango ditu halako laguntzak eman ahal izateko, baldin eta konpromiso horiek berekin dakarten finantzaketa-kostua eta aurreikusitakoaren arabera Administrazioak aurre egin beharreko arriskua dagozkien aurrekontu-kredituek babestuta badaude.

2.- Laguntzen finantzaketa-kudeaketa Finantzen Euskal Institutuaren bidez egingo da edo, dagokionean, aplikatu beharreko arauetan zehaztutako kaudimen- eta eraginkortasun-baldintzak betetzen dituzten pertsona juridikoen bidez, eta arau horietan eta entitate horiekiko lankidetzak-akordioetan xedatzen den moduan. Entitate horiek, halaber, entitate laguntzaile gisa jardun ahal izango dute, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onetsi zuen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean 52. artikuluan eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoaren ondorioetarako.

3.- Xedapen gehigarri honen eraginez aurrekontuetako gastuen eta sarreraren egoera-orrietan egin beharreko egokitzapen teknikoak egiteko baimena ematen zaio Ekonomia eta Ogasun Sailari.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Zenbait ondare-sarreraren araubidea.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek merkataritza-sozietate batzuetako partaidetzak besterendu ondoren -horiek eskuratzea eragin zuen xede estrategikoa jada bete da dutela irizten delako- lortzen dituzten aurreikusi gabeko diru-sarrera eta finantza-baliabideak beste finantza-eragiketa batzuk egiteko aplikatu ahal izango dira, eta

DISPOSICIONES ADICIONALES

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA.- Medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

A los efectos de la normativa en vigor sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, durante el ejercicio 2023 el importe de las operaciones financieras a través de líneas de descuento a formalizar no podrá exceder de la cantidad de 20.150.600 euros.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA.- Medidas de fomento.

1.- Los departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y los entes públicos de derecho privado de su Administración institucional podrán conceder ayudas, consistentes en préstamos y anticipos reintegrables, para la financiación de proyectos de promoción económica, fomento de sectores productivos audiovisuales, fomento de acciones y proyectos de sostenibilidad energética, así como de investigación, desarrollo e innovación.

La concesión de estas ayudas se realizará conforme a lo establecido en las correspondientes normas reguladoras, pudiendo el órgano competente para su concesión asumir compromisos de gasto, no obstante lo establecido en el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, siempre que el coste financiero asociado y la estimación del riesgo previsto al que deba hacer frente la Administración estén soportados financieramente en los correspondientes créditos presupuestarios.

2.- La gestión financiera de las ayudas se realizará a través del Instituto Vasco de Finanzas o, en su caso, de las personas jurídicas que reúnan las condiciones de solvencia y eficacia que se determinen en las correspondientes normas reguladoras y del modo que se disponga en dichas normas y en los pertinentes acuerdos de colaboración con dichas entidades, que podrán actuar, asimismo, como entidades colaboradoras a los efectos de lo dispuesto en el artículo 52 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y su normativa de desarrollo.

3.- Se autoriza al Departamento de Economía y Hacienda a efectuar, en los estados de gastos e ingresos de los presupuestos, las adaptaciones técnicas que sean precisas derivadas de la presente disposición adicional.

DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA.- Régimen de determinados ingresos patrimoniales.

1.- Los ingresos y recursos financieros no previstos y obtenidos en virtud de la enajenación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y por las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi de aquellas participaciones en sociedades mercantiles que se consideren que ya han cumplido la finalidad estratégica que motivó su adquisición podrán ser aplicados a la

eragiketok Finantzen Euskal Institutuaren bidez egin ahal izango dira.

Ondorio horietarako, baimena ematen zaio Jaurlaritzari, 2023ko ekitaldian eta aurrekontu- eta ondare-araubideari buruzko indarreko lege-xedapenetako baldintzetan, bidezko ondare-eragiketak egitea izan dezan eta eragiketa horietatik lortutako funtsak aurreko paragrafoan azaldutako jardueretara aplikatzea izan dezan.

2.- Xedapen honetan aurreikusitakoa betetzeko garatzen diren jarduerak, dena dela, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren finantza-politikaren zerbitzuan ezar daitezkeen gastu arloko baliabide, tresna eta beste ekimen batzuk arrazionalizatzeko eta optimizatzeko Ekonomia eta Ogasun Sailak ezartzen dituen jarraibideei atxiki beharko zaizkie.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- **Azpiegituretako proiektuak onura publikoko deklaratzeko.**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoak irratia, telebistaren eta, oro har, gizarte-komunikabideen arloan dituen eskumenez baliatzeko beharrezko diren azpiegitura-proiektuak onartzeak, bai eta babes zibileko eta segurtasun publikoko zerbitzuen arloan dituen baliatzeko beharrezko direnak onartzeak ere, inbertsioetarako kredituen kontura finantzatutako proiektuak baldin badira, berekin ekarriko dituzte kasuan kasuko onura publikoko deklarazioa eta ondasunen urgentziarako okupazioaren beharra nahiz ondasun horiei dagozkien eskubideak eskuratu beharra, nahitaezko desjabetzeari, aldi baterako okupazioari edo zortasunak ezarri edo aldatzeari ekin ahal izateko.

2.- Onura publikoko deklarazioak erreferentzia egingo die proiektuaren zuinketan eta ondoren onartu daitezkeen aldaketetan bilduta dauden ondasun eta eskubideei ere.

3.- Ondorio horietarako, azpiegituretako proiektuek eta proiektu horien aldaketek azaldu beharko dute azpiegituren definizioa eta zehaztu beharko dituzte azpiegiturak egiteko okupatzea eta eskuratzea beharrezko irizten diren lur-sailak, eraikuntzak eta beste ondasun edo eskubideak.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Sektore publikoko kontratuak aldatzea.

1.- Sektore publikoko kontratuen legeriak xedatutakoaren ondorioetarako, 2023ko aurrekontu-ekitaldi honetan zehar kontratu administratiboetan egindako edozein aldaketa interes publikoko arrazoiengatik egiten dela ulertuko da, baldin eta haren xedea bada aurrekontu-egonkortasunaren helburua lortzea.

2.- Interes publikoko arrazoiengatik kontratu administratiboak aldatu behar badira, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 203. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa bete beharko da. Administrazio-klausulen agiriei erantsi beharko dituzte sektore publikoko kontratuen legerian, aurrekontu-egonkortasuneko neurriak aplikatzearen ondorioz kontratuak aldatu beharri begira, ezartzen diren arretak.

realización de operaciones financieras, que podrán llevarse a cabo a través del Instituto Vasco de Finanzas.

A estos efectos, se autoriza al Gobierno a que, durante el ejercicio 2023 y en los términos de las disposiciones legales vigentes sobre régimen presupuestario y patrimonial, pueda realizar las operaciones patrimoniales oportunas y aplicar los fondos obtenidos a la realización de dichas actuaciones.

2.- En todo caso, las actuaciones desarrolladas en ejecución de lo previsto en la presente disposición deberán sujetarse a las directrices que establezca el Departamento de Economía y Hacienda con el objetivo de racionalizar y optimizar los recursos, instrumentos y otras iniciativas de gasto que puedan establecerse al servicio de la política financiera del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

DISPOSICIÓN ADICIONAL CUARTA.- Declaración de utilidad pública de proyectos de infraestructuras.

1.- La aprobación de los proyectos de infraestructuras necesarios para la ejecución de competencias de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de radio, televisión y, en general, de medios de comunicación social, así como de servicios de protección civil y seguridad pública, financiados con cargo a los créditos para inversiones, llevará aparejada la declaración de utilidad pública y la necesidad de urgente ocupación de los bienes y adquisición de derechos correspondientes, a los fines de expropiación, de ocupación temporal o de imposición o modificación de servidumbres.

2.- La declaración de utilidad pública hará referencia asimismo a los bienes y derechos comprendidos en el replanteo del proyecto y en las modificaciones que puedan aprobarse posteriormente.

3.- A tales efectos, los proyectos de infraestructuras y sus modificaciones deberán comprender la definición de las mismas y la determinación de los terrenos, construcciones u otros bienes o derechos que se estime preciso ocupar o adquirir para su realización.

DISPOSICIÓN ADICIONAL QUINTA.- Modificación de los contratos del sector público.

1.- A los efectos de lo dispuesto por la legislación de contratos del sector público, se considerará que se realiza por motivos de interés público cualquier modificación de contratos administrativos que se lleve a cabo durante el ejercicio presupuestario 2023 y que tenga como finalidad el logro del objetivo de estabilidad presupuestaria.

2.- La modificación de los contratos administrativos por motivos de interés público deberá ajustarse a lo establecido en los artículos 203 y siguientes de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público. Los pliegos de cláusulas administrativas deberán incorporar las previsiones requeridas por la legislación de contratos del sector público respecto de la eventual modificación contractual con motivo de la aplicación de las medidas de estabilidad presupuestaria que correspondan.

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuan ezarritako prestazioen zenbatekoa.

2023ko ekitaldian, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea indarrean sartu arte, diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa, edozein modalitatetan, eta orobat guraso bakarreko bizikidetzak-unitateentzako hileko subsidio osagarriaren zenbatekoa 2022ko ekitaldian aplikatutakoak izango dira % 8,5eko portzentajearen gehituta.

ZAIZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria.

1.- 2023ko ekitaldian zehar, etxebizitza-alokairurako edo ohiko bizitokirako gastuak estaltzea xede duen etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren gehieneko zenbatekoa, hilean, 300 eurokoa izango da, errentamendu, azpierreantamendu, baterako errentamendu, ostatu-emate edo logela-alokairuaren modalitateetan, eta ez da gehikuntzarako aukerarik izango inolako gorabehera dela eta.

2.- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriarako xedatutako araubidea indarrean egongo da Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 9. artikuluan xedatutako erregelamenduzko xedapenak, modu subsidiarioan prestazio ekonomikoen sistema bat ezartzeari buruzkoak, indarrean sartu arte. Araubidea zein prestazioa emateko prozedura horiek ezarriko zaizkie, aldi baterako, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoarekin bat etorritik prestazio ekonomiko baten onuradun izan daitezkeen pertsonen.

3.- Aurreko paragrafoan aipatutako erregelamenduzko xedapenak indarrean jartzen direnetik, ez da aitortuko Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen araberrako etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarri gehiagorik.

4.- Aurrekoa gorabehera, eutsi egingo zaio etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriak jasotzeko eskubidearen aitormenari, bat etorritik Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearekin, betiere aipaturiko erregelamenduzko xedapenak indarrean jarri aurretik aitortua bada, harik eta lege horren 43. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik eskubidea azkentzen den arte. Prestazio horien kudeaketa eta ordainketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokio.

5.- Aurreko 2., 3. eta 4. paragrafoetan ezarritako araubide iragankorra indarrean egongo da harik eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea indarrean sartu arte.

6.- Edozein modutan, 2023ko ekitaldian, etxebizitzarako prestazio ekonomiko horren zenbatekoa 300 eurokoa izango da hilean.

7.- Etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua organismo autonomoak

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEXTA.- Cuantía de las prestaciones previstas en el Decreto 147/2010, de 25 de mayo, de la Renta de Garantía de Ingresos.

Durante el ejercicio 2023, hasta la entrada en vigor de la Ley del sistema vasco de garantía de ingresos y para la inclusión, la cuantía de la renta de garantía de ingresos, en cualquiera de sus modalidades, así como la del subsidio mensual complementario para unidades de convivencia monoparentales serán las aplicadas durante el ejercicio 2022, incrementadas en el porcentaje del 8,5%.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SÉPTIMA.- Prestación complementaria de vivienda.

1.- Durante el ejercicio 2023, la cuantía máxima de la prestación complementaria de vivienda dirigida a cubrir los gastos de alquiler de vivienda o del alojamiento habitual, en cualquiera de sus modalidades de arrendamiento, subarriendo, coarriendo, hospedaje o alquiler de habitaciones, será de 300 euros mensuales, sin posibilidad de incremento alguno por ninguna circunstancia.

2.- El régimen previsto para la prestación complementaria de vivienda en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, se mantendrá vigente hasta la entrada en vigor de las disposiciones reglamentarias previstas en el artículo 9 de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda, en relación con el establecimiento, con carácter subsidiario, de un sistema de prestaciones económicas, aplicándose transitoriamente dicho régimen y procedimiento de concesión a aquellas personas que pudieran ser beneficiarias de una prestación económica de conformidad con lo previsto en la disposición transitoria cuarta de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda.

3.- Una vez en vigor las disposiciones reglamentarias a las que se ha hecho referencia en el párrafo anterior, se dejarán de reconocer nuevas prestaciones complementarias de vivienda de conformidad con lo previsto en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.

4.- No obstante lo anterior, se mantendrá el reconocimiento del derecho a las prestaciones complementarias de vivienda concedidas, de conformidad con lo previsto en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, con anterioridad a la entrada en vigor de las referidas disposiciones reglamentarias hasta su extinción por las causas previstas en el artículo 43 de la citada ley, correspondiendo la gestión y pago de dichas prestaciones a Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

5.- El régimen transitorio previsto en los anteriores párrafos 2, 3 y 4 se mantendrá vigente hasta la entrada en vigor de la Ley del sistema vasco de garantía de ingresos y para la inclusión.

6.- En todo caso, durante el ejercicio 2023, la cuantía de dicha prestación económica de vivienda será de 300 euros mensuales.

7.- El departamento competente en materia de vivienda y el organismo autónomo Lanbide-Servicio Vasco de Empleo

alokairurako prestazioen bi sistemen arteko eskualdaketa ordenatu bat antolatuko dute, bi sistemen alokairurako prestazioen onuradunen eskubideak bermatuko dituena, berme juridiko osoz eta lotutako prestazioen eskubideak eta betebeharrak bateratuta.

ZORTZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Funtzionarioen nahitaezko erretiroa.

1.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 38. artikuluko 1. zenbakiko lehenengo paragrafoan ezarritako jarraikiz, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartutako funtzionarioen nahitaezko erretirorako adina izango da, betiere, araubide hori erregulatzen duten arauak, kasu bakoitzean dagokion kotizaziopeko modalitatean, erretiro-pentsioa adinagatiko koefiziente murriztailerik gabe eskuratu ahal izateko aurreikusten dutena.

2.- 2023ko ekitaldian, bat etorritik Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 38.1 artikuluko bigarren paragrafoan jasotzen den xedapenarekin, funtzionarioek ez dute aukerarik izango zerbitzu aktiboan luzapena eskatzeko.

Hala ere, eragindako langileak, 65 urte betetzen dituenean, gizarte-aurreikuspeneko araubide bakoitza arautzen duten arauarekin bat etorrita, ez badiu egiaztatzen egoera bakoitzari dagokion erretiro-pentsio osoa sortzeko beharrezko diren zerbitzu- edo kotizazio-urteak, zerbitzu aktiboan irautea eskatu ahal izango dio bere erretiroa erabakitzeko eskumena duen organoari. Interesduna zerbitzu aktiborako gai izan beharko da, eta 70 urte bete arte egon ahal izango du bertan gehienez.

Inola ere ezin izango zaio zerbitzu aktiboa luzatu gehieneko erretiro-pentsioaren onuradun izateko baldintzak betetzen dituen interesdunari (urtero ezartzen da gehieneko hori aurrekontuen legerian), nahiz eta luzapen horrek eskubidea sortu pentsioa ehuneko osagarrien bitartez handitzea.

Nolanahi ere, zerbitzu aktiboan egoteko luzapenak Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren nahitaezko eta lotesle izaerako txostena beharko du, baimen berezia eman baino lehen.

BEDERATZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntzarako kredituen kudeaketa.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuen prestakuntza-planak finantzatzeko kredituak, IVAP erakunde autonomoaren aurrekontuetan agertzen direnak, erakunde horrek banatuko ditu norgehiagokako deialdi publikoen bidez, parte hartzen duten administrazioen berdintasun- eta autonomia-printzipioen arabera.

2.- EAEko beste euskal administrazio publiko batzuek onartutako eta gauzatutako planak eta programak izango dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak, prestakuntza-premien diagnostikoen ondoriozkoak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira langile gutxiko erakundeen prestakuntza kudeatzeko gaitasunak.

articularán un traspaso ordenado entre ambos sistemas de prestaciones al alquiler que garantice los derechos de las personas beneficiarias de prestaciones al alquiler de ambos sistemas, con plenas garantías jurídicas y conciliando los derechos y obligaciones de las prestaciones vinculadas.

DISPOSICIÓN ADICIONAL OCTAVA.- Jubilación forzosa del personal funcionario.

1.- De conformidad con lo establecido en el párrafo primero del apartado 1 del artículo 38 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de Función Pública Vasca, la edad de la jubilación forzosa del personal funcionario incluido en el régimen general de seguridad social será, en todo caso, la que prevean las normas reguladoras de dicho régimen para el acceso a la pensión de jubilación en su modalidad contributiva sin coeficiente reductor por razón de edad.

2.- Durante el ejercicio 2023, de conformidad con la previsión contenida en el párrafo segundo del artículo 38.1 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, el personal funcionario no podrá solicitar la prolongación de la permanencia en el servicio activo.

No obstante, si el personal afectado, a la edad de 65 años, de conformidad con las normas reguladoras de cada régimen de previsión social no acreditara los años de servicio o de cotización necesarios para generar el cien por cien de la pensión que corresponda en cada supuesto, podrá solicitar la permanencia en el servicio activo al órgano competente para acordar su jubilación. La persona interesada deberá ser considerada apta para el servicio activo y no podrá permanecer en el mismo más allá del cumplimiento de la edad de 70 años.

En ningún caso procederá la prórroga en el servicio activo cuando la persona interesada reúna las condiciones para resultar beneficiaria de la pensión máxima de jubilación que se establezca anualmente en la legislación presupuestaria, con independencia de que dicha prórroga pudiera generar derecho a incrementar la misma con porcentajes adicionales.

La autorización excepcional de prórroga de la permanencia en el servicio activo precisará en todo caso de un informe previo preceptivo y vinculante de la Dirección de Función Pública.

DISPOSICIÓN ADICIONAL NOVENA.- Gestión de los créditos para formación del personal empleado de las administraciones públicas vascas.

1.- Los créditos para la financiación de planes de formación de otras administraciones públicas vascas que figuran en los presupuestos del organismo autónomo IVAP serán distribuidos por dicho organismo mediante convocatorias públicas de concurrencia competitiva regidas por los principios de igualdad y autonomía de las administraciones concurrentes.

2.- Los conceptos subvencionales serán los planes y programas aprobados y ejecutados por otras administraciones públicas vascas, derivados de diagnósticos de necesidades de formación, sin perjuicio de la necesaria consideración de las capacidades de gestión de la formación de las entidades con reducido número de

3.- Funtsak banatzeko irizpideak finantzatzeko den prestakuntza-jardueraren kostuetara igorriko dira, eta kredituak ez badira eskatutako zenbateko osora iristen, administrazio bakoitzari dagozkion zenbatekoak hainbanatzeko dira, kontuan hartuta erakunde bakoitzeko langile kopurua mota bereko erakunde eskatzaileen langile kopuru osoarekiko.

4.- Behar den eraginkortasuna eta segurtasun juridikoa emateko, kredituen banaketarako eta kreditu horiek legez aurreikusitako xedeetarako erabili direla egiaztatzeko, dirulaguntza publikoei buruzko printzipio eta arauak jarraituko dira.

HAMARGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- **Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko administrazio-berrantolaketak.**

1.- Edozein plan, programa, jarduketa garrantzitsuk edo lege mailako xedapenek eragindako administrazio-berrantolaketak direnean, Jaurkitzeak erregulatu eta xedatu ahal izango du, aplikatzeko den lan-arloko legeriaren edo funtzio publikoko legeriari jarraituz, subrogazioei buruz behar den guztia, kontratu-erlazioei dagokienez eta sektore publikoko edozein entitatearen sorrera, azkentze edo eraldatzeetik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak dagokienez, bereziki, bertako langileak sektore publikoko beste entitate bati adskribatzeari dagokienez.

2.- Horretarako, aurrekontuetako eta funtzio publikoko eskumena duten sailek proposatuta, Gobernu Kontseiluak aurrekontu-plantillak aldatzea baimendu ahal izango du, eta langile-zuzkidura berriak sortzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateetan, baldin eta behar beste zuzkidura amortizatzen badira sektore publikoko beste entitate batzuetan urteko kostu gordina handiagoa izan ez dadin.

HAMAIKAGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- **Ikerketa eta Irakaskuntzaren Laguntzarako zerbitzuen lanpostuak betetzeko ohiz kanpoko deialdia.**

2023ko ekitaldian, Hezkuntza Sailak lekualdatze-lehiaketaren ohiz kanpoko deialdi baten bidez bete ahal izango ditu Ikerketa eta Irakaskuntzaren Laguntzarako zerbitzuen lanpostuak. Deialdi hori ebatzi ondoren hautatuko diren funtzionarioek xede diren lanpostuen titulartasuna eta behin betiko destinoa eskuratuko dute, eta ezin izango zaie aplikatu, ondore horietarako, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoek kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 33. artikuluko 3 eta 4. paragrafoetan xedatutakoa. Ondorioz, jatorrizko lanpostua eta behin betiko destinoa gordetzeko aukera galduko dute. Nolanahi ere, irakaskuntza-lanpostuetara itzuli ahal izango dira, euren borondatez, lanpostuak betetzeko ohiko lehiaketen bitartez.

efectivos.

3.- Los criterios de reparto y distribución de los fondos se remitirán a los costes de la actividad formativa cuya financiación se solicite y, en el supuesto de que los créditos no alcancen la cantidad total solicitada, se prorratearán las cantidades correspondientes a cada administración, en atención al número de efectivos de cada entidad respecto al número de efectivos del total de entidades solicitantes del mismo tipo.

4.- A fin de dotar de la necesaria eficacia y seguridad jurídica, el reparto y distribución de los créditos y la justificación de los mismos en las finalidades legalmente previstas se realizará siguiendo los principios y normas relativos a las subvenciones públicas.

DISPOSICIÓN ADICIONAL DÉCIMA.- **Reorganizaciones administrativas del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.**

1.- En el supuesto de reorganizaciones administrativas que vengan producidas por cualesquiera planes, programas, actuaciones significativas, así como por disposiciones con rango de ley, el Gobierno podrá regular y disponer cuanto sea necesario en relación con la subrogación en las relaciones contractuales y en cuantos derechos y obligaciones de cualquier género se deriven de la creación, extinción o transformación de cualquier entidad del sector público y, en particular, sobre la adscripción e integración del personal a su servicio en otra entidad del sector público, de conformidad con la legislación laboral o de función pública que le sea aplicable.

